

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 1300

*600/2024 EBAZPENA, otsailaren 29koa, Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Roberto Blanco Mata jauna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako Erakunde Sanitario Integratuko Kardiologiako (Hemodinamikako Atala) Atal Sanitarioko buru izendatzen den aldi baterako, lau urte luzagarri.*

Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIko zuzendari-gerentearen ekainaren 23ko 1889/2023 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIko Kardiologiako (Hemodinamikako Atala) Atal Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2023ko irailaren 14ko EHAA 176 zk. eta 2023ko irailaren 25eko BOE 229 zk.).

Epaimahaiak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela Roberto Blanco Mata jaunak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da hura izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Ezkerralde- Enkarterri-Gurutzetako ESIko Integratuko Kardiologiako (Hemodinamikako Atala) Atal Sanitarioko buru.

Beraz, bat etorri z Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunarekin, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Roberto Blanco Mata jauna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIko Integratuko Kardiologiako (Hemodinamikako Atala) Atalburu Sanitarioko buru izendatzea aldi baterako.

Bigarrena.– Izendapen honek lau urteko indarraldia izango du, luzatzeko aukerarekin, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikulua hiru garren arau komunean ezarritakoarekin bat, eta 2024ko martxoaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Izendatutako pertsonak aipatutako epea amaitzean utziko du postua, ezpada luzapena egin ahal izateko baldintzaren bat jazotzen dela eta, betiere, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen aipatutako 28. artikuluan ezarritakoarekin bat etorri.

Laugarrena.– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kendu ahal izango dute kargutik izendatua, aldeztu aurretik kontrako espediente dagoela, eta ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua 6. apartatua aurreikusitako lekualdatze-kausak direla medio.

Bosgarrena.– Ebazpen honen berri ematea interesdunei eta Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIko Zuzendaritzari.

2024ko martxoaren 13a, asteazkena

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Barakaldo, 2024ko otsailaren 29a.

Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESiko zuzendari-gerentea,  
MARÍA LUZ MARQUÉS GONZÁLEZ.